

AXPI ETA MAITANE GARTZIANDIA

TUPUST! kolektiboa



“NAHIKO LAN DUGU EMAKUMEOK KOMIKIGINTZAN GURE DISKURTSOAK PUBLIKO EGITEN”

Bi ahots soilik erregistratzen ditu grabagailuak, baina izan zitezkeen askoz gehiago. Emakumezko hogeit hamar euskal komikigile baino gehiago batzen dituen Tupust! kolektiboko kide dira Aina Azpiasu Axi (1980, Hernani, Gipuzkoa) eta Maitane Gartziandia (1990, Hernani, Gipuzkoa). Haien biak dabilte hizlari, baina taldea mintzo da haien bidez. 2016an abiatu zuten kolektiboa, eta feminismoa eta komikigintza uztartzea dute helburu. Bilerak egiten eta marrazkilaria saretzen hiru urte eman ostean, orain kaleratu dute beren lehen argitalpena: *Tupust!* (Txalaparta). Hogeit hamar egilek sortutako hamalau istorio osatzen dute liburua, eta guztiek dute gai bera: “Ni”.

Testua eta argazkia: **Iñigo Astiz**

Sonatua izan zen 2015ean hainbat komikilarik Angulemakoko komiki azokari egindako boikota. Jaialdiak emakumeak baztertzen zituela salatuz, eta nazioarteko oihartzuna izan zuen kritikak. Korrante horrek bultzatuta sortu zenuten kolektiboa?

AXPI: Ez, ez zuen eragin zuzenik izan. Kolektiboan baditugu underground munduan aritu diren sortzaileak, autoedizioaren mundutik datoz beste

AXPI: “Feminismoak hartu duen indarra dela-eta, esparru askotan izan dira leherketak”

batzuk, bagaude argialetxeekin lan egitera ohituta gauden batzuk, eta badira lan egin arren, orain arte askorik argitaratu ez duten marrazkilaria ere. Komikia sortzen aritzen garen guztiak biltzea izan da xedea.

Feminismoak hartu duen indarra dela-eta, esparru askotan izan dira leherketak: hala gertatu da, adibidez, literaturan, bertsolaritzan, eta beste esparru askotan, eta guztietan atera dira ahotsak aldarrikatzeko emakumezko sortzaileak egon badaudela eta beti egon direla, igual ez gaituztela ikusi, baina egin egiten dugula, eta hau existitzen dela.

Komikigintza eta feminismoa uztartzea da taldearen helburua. Nola batu dituzue bi kezka horiek?

GARTZIANDIA: Naturala izan da. Solasaldietan ez dugu gai hori teorikoki gehiegi landu. Gure esparrua zein den kontuan hartuz, aurrez ere landua genuela uste dut, ezinezona sortzen digun gai bat delako, eta oso naturala izan da. Gerora formulatu dugu hitz horiekin, eta orduan hartu du garrantzi handiagoa. Liburuaren argitalpenaren ondoren egindako elkarrizketetan ere asko lotu da kolektiboa feminismo hitzarekin, eta igual ez hainbeste euskararekin.

AXPI: Bai, etiketa horiek gerora etorri dira. Nik uste, taldeko guztiok gaudela sentsibilizatuta euskararekin, euskaraz egiten dugula bizitza, komikia ere euskaraz sortu nahi dugula, eta emakumeak garen aldetik, generoaren gaia zaindu dugula. Baina etiketa horiek ez genituen buruan izan hasieran. Egintzat ematen zen, eta horrela sortu da.

GARTZIANDIA: Egia da komikigintza oso esparru maskulinoa dela, eta ilustrazioaren



esparruan emakume gehiago ezagutzen ditugula, eta guk komiki bat egin dugu.

Estilo eta tonu askotako lanak daude liburuan. Badaude komikigintza klasikoaren airea dutenak eta ilustraziotik gertuago daudenak. Bereizita aurkeztu ohi diren bi esparru horien arteko mugak lausotzea izan da zuen asmoa?

GARTZIANDIA: Gai horretaz ere ez dugu gehiegi hitz egin, baina iruditzen zait guztiok ulertzen dugula komikia esparru zabala dela, eta horregatik dira oso ezberdinak gure komikiak. Oso naturala izan da hori ere, irakurtzen ditugun komikiak ere ez direlako hain itxiak izaten.

AXPI: Egia da ilustraziotik datozen sortzaileek beren modura egiten dutela komikigintzarako jauzia, igual ez dutelako hainbeste sakondu komikiak berezko dituen onomatopietan, marra zinetikoetan eta bineten sekuentziazioan. Nik ere maila bateraino sakondu dut horretan, eta liburuan badaude komikiaren baliabide horiek gehiago baliatzen dituzten lanak ere. Baina aniztasuna errespetatzeko, ez dugu mota horretako baldintzarik jarri liburuan. Tamaina zehatz bat, irudiak bi koloretan egotea eta gaia, horiek izan dira istorioak sortzeko jarri ditugun baldintza bakarrak.

Orain kaleratu duzue liburua, baina hiru urte eman dituzue barne-lanetan. Zer da itzaleko denbora horretan egin duzuen?

GARTZIANDIA: Liburu bat egiteko ideiarekin hasi ginen elkartzan, baina ez genekien nolakoa izango zen, eta ez genekien kolektibo modura funtzionatu nahi genuen ala ez. Baina bagenuen sare bat eraikitzeke gogoan. Oso lan bakartia da eta garrantzitsua da sare hori edukitzea.

GARTZIANDIA: "Oso lan bakartia da hau, eta garrantzitsua da sare hori edukitzea"

AXPI: Oso-oso-oso bakartia. Behar dituzu gauzak eduki oso argi eta psikologikoki indartsua izan behar duzu, bestela ezin duzu aurrera egin, eta sareak beti babes bat ematen du. Gauzak bakardadean bizi direnean zama izaten dira, eta, konpartituta, arindu egiten dira gauzak. Taldeak laguntzen digu gure artean elikatzen ere: diseinuaren mundua arrotza zait niri, adibidez, eta oso aberasgarria da horretan aritzen direnengandik edatea, horrek beti irekitzen dizkizulako bide berriak.

Axpi, zuk badaramatzazu urte batzuk euskal komikigintzan murgilduta. Gizonezkoak nagusi diren esparruan aritzearen sentsazioa izan duzu?

AXPI: Gurgil zoroak gertatzen dira: irakurleak ohitzen dira gauza batera, eta

hori espero dute, eta, ondorioz, sortzen diren gauzak era horretakoak izatea dakar horrek. Euskal Herrian komikia ez da oso gauza zabala, irakurle gutxi dituelako, eta horrek ere sortzen ditu gurgil zoro horiek. Nahikoa lan badu euskarazko komikigintzak bizirauten, eta, ondorioz, anitza izateko ere nahiko lan. Eta nahiko lan dugu emakumeok ere gure lana eta gure diskurtsoak publiko egiten, hasieran arrotz suertatzen delako espero den horren barruan. Baina bertsolaritzan ere pasatu da hori, eta urteekin joan dira gaiak aldatzen, eta hasi dira plazaratzen orain gutxira arte ukiezinak izan diren gai batzuk ere. Komikigintzan ere lan horretan ari gara, eta bagoaz bidea urratzen. Oso hastapenetan gaudela esango nuke, baina asko dago egiteko, eta berri ona izan daiteke hori. Irakurleak lortzea da erronkarik handiena, gainera, era bateko eta besteko estilo eta tematikak jasotzeko prest egongo direnak.

"Ni". Hitz hori izan da taldearen lehen liburuko gaia. Zergatik?

AXPI: Ideien ekaitz bat egin genuen, eta atera zen gaien artean zegoen hori. Iruditu zitzaigun konkretua eta aldi berean zabala zela, eta "hemen gaude" esatera bagentzen ez zela gai txarra. Egokia zen, bazuen zukua eta sarbide asko eskaintzen zituen. Horrelako zerbait behar genuen.



Estilistikoki milaka ate ditu komikigintzak, eta horren erakusgarri da liburua.

AXPI: Arte Ederrak ikasi nituen nik, baina ez genuen ilustrazioa landu, master bat eta ikastaro asko egin ditut gerora, baina konplexu bat banuen; hemen ez dagoenez eskolarik, sentitzen nuen ez dagoela estilo bat. Bartzelonan, adibidez, nik errekonozitzen ditut bi edo hiru korrante, eta horri buruz aritu ginen Ignasi Blanch ilustratzaile katalanarekin. Berak ere nik ikusi nuen gauza bera ikusten zuen, baina aberastasuntzat zeukan berak nik gabezia bezala ikusten nuena. Eskolarik ez daukagunez, ez garela denok ibai beretik aritzen esan zuen, eta hori oso gauza ona zela.

GARTZIANDIA: Nik ingeniarietza ikasi nuen eta gehienbat tailerren bidez edo neure kabuz joan naiz formatzen. Oso umezurtz sentitu izan naiz horregatik, ez daukadalako zeri eutsi: eskolarik ez dago, eta irudigileen elkarte bat badagoen arren,



TUPUST!

Tupust! kolektiboa
Arg. Txalaparta
127 orri | 18€

sentitzen nuen ez neukala nora jo. Nik beste lanbide bat dut, eta oso zaila iruditzen zait marrazkigintzaz bizitzea, eta hor zure ibilbidea kontsolidatzea.

Umezurtz sentsazio hori arindu zaizu Tupusti esker?

GARTZIANDIA: Halako ekimenek laguntzen dute: babesba jaso dut.

Pozik zaudete orain arte izandako harrerarekin?

GARTZIANDIA: Oso pozik. Berria zen niretzat prentsan aurkeztea, eta oso pozik bai horrekin, eta baita liburuarekin berarekin ere.

Gose moduko bat edo bazegoela esango nuke. Komiki gehiegi irakurtzen ez duten lagunak ere etorri zaizkit niri behintzat zuen proiektuaz galdezka.

AXPI: Ez da seinale txarra. Bidea urratu beharra dago, orokorrean komikiarekin. Literatura mota bat da, azkenean, eta euskal gizartean ez dugu horrela barneratua, eta pena bat da, ze ondoko estatuan horrela barneratuta dute, eta aukera handiak ematen dituen medio bat da, eta oso aberasgarria da edozein literatur zalerentzako. Lan hau ere badator animatzera jendea euskal komikigintza irakurtzera, emakumeek egindako lanak irakurtzera, eta estetikoki ohituta ez dauden gauzak ere irakurtzera. Lehen aipatzen nuen gurgil zoro hori beste alde batetik elikatzen hasten bagara denon mesede izango da. Hori behar da.

Erresistentziarik igarri duzue gizonezko komikigileen aldetik?

AXPI: Ez. Kontrakoa. Harrera ona izan duela iruditzen zait.

GARTZIANDIA: Denontzako da aberasgarria lan hau.